

## **HEBENTIK**

**Smartphonarik gabeko  
günea da**



Ikusgarri gelan,  
pantaila argitsü  
konstelaziorik ez,  
taula gainen  
igaraiten da  
eta kitto!

**Gabe egitea proposatzen deizüegü. Balinbadüzü bat, otoia etxen üt ezazü,  
ala autoan gütienez, gure emanaldietara sartü aitzin.**

Jokatzen dügü zure besteekiko benia eta presentzia irabazle dirateala.

### **Smartfonak lanho...**

Hain beita pratikoa, noiz nahi, hain beitä gure beharrer ihardesten, non orai banalizatü beita. Eta batere ohartü gabe, ezinbestekotü zaikü, ez bagira nahi egünoroztako egitekoetan trabatüririk izan, gixeten leihatilak desagertü direnean. Eskü argiaren leküa hartü dü jagoitik, bai argazki tresnarena, agenda, diapasona, partizione orrialdea... bai eta telefona kabina, eta mihia ere, zoin erabilten beigünüan lehen, kantaldialako bidearen galtatzeko. Gure nortarzünaren probatzeko bide bakarra bilakatzen ari zaikü ere. Gure sakolen parte dago, non ez dügün ahürrean itzatüririk, den mendren arrenküra ala ahaztüraren konpontzeko, holaz düda eta galto üneak desagerraraziz. Hona zertako gure mündüa inbaditzen düan, gure artean sartüz.

### **Eta audela,**

Uste badüzü nümerizazionea planetarentako hon dela, « Transizio ekologikoan » parte hartzen düala, materia ez beilüke kontsumitzen, teknologia honen alderdi zonbait ahatze dükezü. Saltzen den « desmaterializazione » famatü horrek bere mügak ageri dütü : numerikoa egün energiaren xurgatze emendatzearen arrazu nausia dago, ekei edo materiaren ekstrakzionea handitzen dü lazki (lür arraroak besteak beste), hau mündü orotan. Urteak badira ere gerla hilgarriak eragiten dütüala, Kongon bezala (miliuka hil). Hain maitagarri dügün hau ez da ezdeusa.

**Smartphonarik gabeko lekü haboro izateak ekar dezake tresna horren  
desnatüralizatzea, gühaur ohartüz zer kentzen deikün.**